



Koldo Eizmendi Nazabal

“Kriston burrundaie”

BERGARA 2024. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Azaroaren 15etik abenduaren 1era • Del 15 de noviembre al 1 de diciembre

Azaleko argazkia:
El Corazón del Sapo

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN
Koldo Eizmendi Nazabal

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL
LG D 01044-2024



KRISTON BURRUNDAIE

Fernandoren egia izanagatik, noizean behin geure buruari oroitarazi egin behar izaten diogu: irudiek ahotsa dute, ez dira neutroak batere. Gaia, laukiratzea, konposizioa, kolorea, argia, testua, markoa, markak, babeslea... Beraz, ahotsa ez ezik hotsa ere izaten dute irudiek, zarata eta burrundara ez denean. Eta elkarren ondoan paratutako erretratuek kontakizunak proposatzen dituzte, norberari mintzo zaion norabide askotako narrazio bat gutxienez. Bidaia da, denbora geldoan eta denbora urdurian barrena.

Euskal Herriko rock-and-roll taldeen kontzertuak ditu ardatz Koldo Eizmendiren erakusketak. Bizitza txatalak bost bat urteko txangoan, eszenatokiak, tresneria, musikariak, entzuleria eta inguruabarrak gori-gori. Egia diotsuet, gaur egun dagoen atari aldearekin Bergarako etxabe eder honetan sartu, eta hormetan eseki argazki artean tarte batez galtzeko deliberoari aldarri kutsua hartzen diot. Garbi ez dakidan arren zeren aldarri.

Zer esaten dizu kufija palestinarrak mikroaren hanka bakartuan kiribilduta? Zelan eransten zaio jendearen azalari denboraren izerdia? Haizeari harro emandako ilaje oparoak, jauzi zoroek, dantzak, oihuek eta lurzoru likatsu itsaskorrek zein gramatika moldetan jokutzen dute gugan? Ez al daude hemen algoritmoa saihestu eta

hari ihes egiten dioten banakako angelu itsuak, fantasia kolektiboak? Eta ondoren, dena hartzen, isilaren doinuak.

Koldo Eizmendik nare, leiho eta ateak zabaldu nahi dizkio gogoari, eguneroko grisetik hara ezustearen keinuekin, harriduraren xarmaz, elkar hartzearen magia lagun, argazkiotan harrapatzen gaituenarekin bezala geure buruarekin bat egin dezagun. Denboraren hariak josten dute bizitzaren bilbea; bai hari sendoek, bai hari meheagoek. Eta instanteak efimeroa, galkorra denaren lekukotza errepikaezina dakar.


Ederraren neurrian, berriz, bakoitzaren zaina zerk erasaten duen, horrexek agintzen duelakoan nago. Hori ere ez baita neutroa eta denentzat berdina. Izan ere, Txuma Murugarrenen ahotik Nick Cave-k dioena neure eginez, "Bizitza zoragarria da, aurkitzen baduzu...".

Irudiok bere ahots propioaren bila dabiltza iragaitzan, batetik bestera izukaitz, eta hori lortze bidean ikus-entzulearen konplizitate kritikoa nahitaezkoa dute. Behar bada zeharo oker ibiliko naiz, baina pentsatzen dut era aski zuzenean, belarriekin ikusi eta begiekin entzuteko eskatzen ari zaizkigula foto hauek. Denboraren bisaia, argi-ilunak, soinua, burrundara.

Jose Luis Otamendi




Mc Onak



Never Surrender



Screamers & Sinners



Niña Coyote Ta Chico Tornado



Garratz



Willis Drummond



The Clayton



Estricalla



Bazka



Huntza




Jul



Lin Ton Taun



Chuleria Joder



Berri Txarrak



Liher



Azkaiter Pelox



Lisabo



Anestesia



Galder



Fridays Crew




Neallta Fola



Garazi ta Sala



Belako



Emon



The Potes

Eskerrak Bergarako Udalari, Musika Zuzenean-eko Koldori, Domusa Teknik-i eta, bereziki, etxeko sorgin eta sorgintxo Saioa, Garazi eta Ihintz-i hau posible egiteagatik.

koldo eizmendi nazabal

“Kriston burrundaie”

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
	18:00 - 20:30
igande eta jaiegunetan	12:00 - 14:00



AROTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala

